

# Gure aitona Joxe

Jose Anjel Etxeberria

**A**urtengo apirileko igande eguzkitsu batean, Jose Antonio Agirre lehendakariaren heriotzaren 50. urteurrena zela eta, Donibane Lohizuneko eliza nagusian bere aldeko meza ospatu zen. Euskal Herriko, bai Ipar eta bai Hego aldeko agintari eta jendearen parte hartze handia izan zen eta han nintzela burura etorri zitzaizkidan nire haurtzaroan bititako eta entzundako istorio batzuk, eta bereziki gure aitona Joxe etorri zitzaizdan gogora.

Nere buruari esan nion: aitona Joxe bizirik balego ez zuen galduko meza hau. Gogoan bainuen nola, behin baino gehiagotan, hirurogeiko hamarkadan, gure aitona Agirre lehendakariaren aldeko mezataria joana zela. Noski, haiek erdi ezkutu ospatzen ziren eta mezatarako abisua ahoz aho pasatzen zen. Gure aitona Joxerentzat, Agirre Lehendakaria zen, Euskadiko Lehendakaria, bere Lehendakaria. Estimuan zuen Agirre lehendakaria, berak maite izan zuen eta bere alde borrokatu eta

sufriarazi izan zuen Euskadiren eta askatasunaren sinbolotzat zuen. Aitona euskaldun amorratua zen eta euskaldun izateaz harro zen beti; honek momentu pozgarriak eman zizkion, baina baita mingarriak ere.

Aitona Joxeren bizitzak hiru oinarri zituen: kristautasuna, abertzaletasun-euskara eta familia. Baserritar giroan jaio, bizi eta hil zen. Baserria zuen ogibide, nahiz ez bakarria izan. Berari entzuna diot San Markos eta Txoritokietako harrobietan lanean ibilitakoa zela eta, harrobian, Txirrita bertsolarirekin lan egin zuela. Zahartzaroan, harrotasunez esaten zuen, berak Txirritari bizarra moztzen ziola, eta bere bizitza guztian ez zuela hain aurpegi azal leunik topatu.

Gerra aurretik ilusioz bizitu zituen euskal pizkundea eta horren inguruan sortu zen askatasun eta euskal nortasunaren aldarrikatze giroa. Zoritxarrez, dena hankaz gora joan zen 1936ko "Cruzada nacionalarekin". Hortik aurrera gure aitonaren eta familiaren bizitza zeharo aldatu zen.



Aitona Joxe bere seme Fernandorekin, Añabitarte basarriaren atarian.

Errenteria matxinatutako armadaren esku erortzeaz zenean, gure aitona ihes egin behar izan zuen. Aurrenean, Bilbo aldera eta gero Castro Urdiales eta Santanderrera jo zuen. Ihesi zebilela, berak zionez, egun batez Euskadi independentea bizitu izan zuen. Bilbo galduta, Agirre lehendakariak Euskadiren independentzia aldarrikatu omen zuen... edo horrela gogoratzen zuen, bederen, gure aitona Joxek.

Garai latz haietan, ez zen gure aitona baserri-  
tik alde egin behar izan zuen bakarra. Alaba zahar-  
renaren senarrak, Gipuzkoa galduta, Iparraldera jo  
zuen. Aitonaren seme bat, osaba Julian, hamazazpi  
urterekin gudariek in joan zen gerrara, ez zen buel-  
tatu, han galdu zuen bizia, hamazortzi urte bete  
berriak zituen.

Jadanik frankistak agintean, gerra garaian  
baserrian bizitako pasarterik beldurgarrietako  
bat "paseoak" ematera zuzentzen zen erreketeta eta  
falangistaz osatutako taldearen bisitarekin gertatu  
zen. Aldi hartan lau belaunaldi bizi ziren baserrian:  
Añabitarreko alaba zen Joxeren emaztea, gure  
amona Lina eta laurogei urte inguru zituzten haren  
gurasoak, gure birraitona eta birramona, eta Joxe  
eta Linaren sei seme-alabak eta alaba zaharrenaren  
seme-alabak.

Baserria inguratu eta goitik behera miatu  
ondoren, denak atarian zirela, talde buruak –oiartzuar  
haren abizena ez esango nik– lehendabizi aitona  
Joxerengatik galdetu zuen. "Ez da etxean", erantzun  
zioten. Orduan alaba zaharrenaren senarragatik

galde egin zuen. Erantzun berdina: "ez da etxean".  
Hirugarren galdera seme batengatik egin zuen,  
zorionez hura ere zen etxean.

Birraitona kenduta, egun hartan baserrian  
zen gizaseme zaharrenak –gure aita zenak–  
hamahiru urte eskas zituen, horrek salbatu zuen.  
Ez zuen suerte bera izan gure aitona Joxeren anaia  
Jeronimok. Bere jaiotetxera, Larraburu baserrira bila  
joan, preso hartu eta fusilatu egin zuten, horrela hil  
zuten Jeronimo, hamaika seme-alaben aita.

Denbora pasa arren, Añabitarreko baserrian  
zirenek ez zituzten inoiz ahaztu egun beldurgarri  
hartan talde armatu haren buruak agurrean esan  
zituen hitzok: "*Hau egun tristea! Ez nuen espero  
hiru lagunena bila etorri eta Añabitarretik esku  
hutsik alde behar izana*".

Hau gertatu baino hilabete eta erdi  
lehentxeago, 1936ko uztailaren amaieratik irai-  
laren 12ra arte, Errenteria erori arte, gerra fron-  
tea Añabitarretik gertu egon zen. Erreketek  
Bunaundiko gainean ziren, Oiartzungo lurretan.  
Bunaundi tontorra Txikerdi sagardotegiaren aurrean  
dago, Iturriotz aldera, eta Añabitarreko gainetik  
aurrez aurre da. Udarako igande arratsaldea omen  
zen eta etxekoak, etxean gelditzen zirenak, baserri  
aurrean zeuden, helduak solasean eta umeek jola-  
sean. Halako batean, bi soinu fin-finak entzun ziren:  
"zast, zast". Bi balen hotsa. Suertez, bi jaurtigai  
madarikatu haiek denon tartetik pasatu ziren eta  
ukuiluko egurrezko atean betirako sartuta gelditu  
ziren. Urteak pasata, han ezagutu nituen eta oso  
gogoan dauzkat bi zuloak lurretik metro  
eta erdi bateko altueran zeudela. Tiro  
egin zuenak ikusten zuen emakume eta  
umetxoek kontra ari zela!

Eta, bitxia bada ere, gerra garaiko  
historia guzti hauek nahigabearekin  
eta tristurarekin bai, baina gorrotorik  
eta herrarik gabe kontatzen ziren gure  
etxean.

Honen haritik, gogoan dut,  
hamar edo hamaika urte nituela  
Errenteriako Kaputxinoen elizan gerran  
hildako gudarien eta fusilatuen alde  
egin zen lehen meza. Deia ahoz aho  
hedatu zen. Beldurra handia zen,  
hirurogeiko hamarkadaren amaieran  
baitzen, artean diktadura bete betean  
eta indarrean zegoenean. Hala ere,  
mezak arrakasta handia izan zuen.  
Oroitzen naiz nola joan ziren mezataria  
gure aita eta ama eta baserriko osaba.  
Eta gogoan zenbat saiatu ziren Joxe  
animatzen. Baina gure aitona ez zen



joan, ezin izan zuen, barrenak ez zion eman, sufri-  
mendu gehiegi zekarren bihotzean egun hartako  
ospakizunak. Urteak pasa dira baina, oraindik,  
gaur bailitzan oroitzen naiz arratsalde hartako  
giroaz. Baserrian, aitona, gure anaia txikia eta  
ni, hirurok bakarrik eta isil-isilik, gurasoak eta  
osaba mezetatik etorri zain. Gogoan dudan bezala  
nolako harrotasunarekin erakusten zizkigun aito-  
nak bere bi bilobei baserriko ganbaran krista-  
lezko pota batean ezkutaturik zituen Euskadiko  
Jaurlearitzaren pezetak.

Gizon alaia eta jantzia zen aitona Joxe.  
Hirurogeita hamar urtetik gora izanagatik,  
deseatzen egoten zen noiz etorriko zen "Zeruko  
Argia" aldizkariaren ale berria. Oraindik gogoan  
dut ze afanarekin irakurtzen zuen.

Bertsolaritza ere oso gogoko zuen. Zenbait  
aldiz entzunda nago, behiak jezten zituen bitar-  
tean, gure aitona bertso kantari! Memoria onekoa,  
bertso eta bertsolarien pasarte ugari kontatzen  
zituen. Antonio Zavala jesuita eta herri-literaturaren  
ikertzaileak bere liburu batzuetan aitona Joxeren  
aipamena egiten du eta Añabitarteko sukaldean  
egindako solasaldietan jaso zituen hamaika bertso  
eta gertakizun.

Bada nik bizi izan nuen Antonio Zavala  
eta aitona Joxeren arteko istorio xeble bat.  
Haurtzaroko udara batean gertatu zen, belar garaia  
zen eta gogoan dut metak prestatzen ari ginela  
Añabitarten. Arratsalde hartan, hor dator bidetik  
Antonio Zavala, maleta zaharra zirudien tresna  
handia eskuan. Han bertan, belardian eseri eta  
hasi dira aitona eta biak solasean, Antonio Zavalak  
galderak egin eta aitona Joxek hainbat pasarte eta  
bertso kontatu eta kantatuz. Iluntzean, hitz asper-  
tua bukatutzat eman zutenean, fraideak ekarritako  
tresna handi hartan zerbait egiten du eta hor has-  
ten da gure aitona berak esandako eta kontatutako  
pasarteak eta bertsoak entzuten... "*sorginkeria,  
hau sorginkeria da!*", esan zuen aitona Joxek,  
Antonio Zavalak erakutsi zion arte "*maleta zahar*"  
hura zertarako zen eta izena zuela: "*maneto-  
foia*". Gehiagotan ekarri zuen tresna hura Antonio  
Zavalak, baina gure aitona ez zen behin ere fidatu  
berak zioen "*manetofoi*az".

Zenbat oroitzapen piztu daitezkeen apiri-  
leko goiz eguzkitsu batean, Donibane Lohizuneko  
kaleetan. Horietako batzuk hemen jaso ditut eta  
gure lehenagokoek zioten moduan: barkatu gaizki  
esanak eta gogoan hartu ondo esanak.

